


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004KO MAIATZA

Euskal AEko industri jarduera %4,7 hazi zen 2004ko maiatzean

Urteko lehenengo bost hilabeteetako bilakaerak %4,0ko hazkundera izan zuen, 2003ko aldi beraren aldean.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko maiatzean, %4,7 hazi zen Euskal AEko industri jarduera, balio absolututan, 2003ko hil beraren aldean. Balio homogeneotan, urte arteko aldakuntza %4,5era iritsi zen. 2004ko lehenengo bost hileko hazkunde metatua %4,0n kokatu zen, balio absolututan, aurreko urteko aldi beraren aldean; eta %3,4ko hazkundera izan zen, urte arteko alderagarritasuneko balio egokituetan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(*) 2004ko apiril-maiatza

Iturria: EUSTAT

2004ko maiatzean, urte arteko aldakuntzarik positiboenak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%26,1), *material elektrikoa* (%14,9) *papera, argitalpena eta arte grafikoak* (%8,5), *kautxua eta plastikoa* (%7,3) eta *garraio-materiala* (%5,4) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *ez-metalezko industria* (%-32,2), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-25,5), *larruaren eta oinetakoaren industria* (%-12,8), *bestelako enbrosak* (%-4,8), *zurgintza* (%-2,6) eta *elikagai-industria* (%-0,5) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo bost hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *petrolioaren finantza* (%27,7), *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%25,7), *material elektrikoa* (%8,4), *kautxua eta plastikoa* (%4,8) eta *ehungintza eta jantzigintza* (%4,4) arloei, besteak beste. Tasa metaturik

negatiboenak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetakoen* industria (%-14,5), *ez-metalezko industria* (%-13,1), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-10,6) eta *bestelako manufakturak* (%-5,8) arloek, batik bat.

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapen berrian, 2004ko maiatzean, nabarmen igo zen *energiaren* urte arteko tasa (%19,0) eta apalago *ekipo-ondasunena* (%4,8), *bitarteko ondasunena* (3,3) eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrena* (%2,5). *Kontsumo-ondasun iraunkorrena* (%-0,2) berriz, apur bat jaitsi zen eta beraz, *kontsumo-ondasunak*, osotara, %1,6 igo ziren.

Urteko lehenengo bost hilabeteetan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, *energiak* %26,2ko hazkundera metatu zuen, *bitarteko ondasunek* %2,6koa eta *ekipo-ondasunek* %1,6koa. *Kontsumo-ondasunak*, aldiz, %0,3 jaitsi ziren eta honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %-3,4ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrak* %1,2ra.

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %12,4 hazi zen Araban, %5,0 Bizkaian eta %0,2 Gipuzkoan. Urteko lehenengo bost hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabari (%7,2) egokitu zitzaizkion, ondoren Bizkaia (%3,5) eta azkenik Gipuzkoari (%2,6).

Taula: 2004ko MAIATZA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004ko maiatzeko aldakuntza-tasak		2003ko maiatzeko aldakuntza-tasak	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	4,7	4,5	-0,8	1,6
Araba	12,4	12,2	-3,6	-1,0
Bizkaia	5,0	4,5	0,4	2,7
Gipuzkoa	0,2	0,2	-0,6	1,8

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso

Tel.: +34-945 017 514. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es